

# Bakea behar dugu? Bai, baina ez

• ABELIN LINAZISORO •

[AKTOREA]

**E**z da kasualitatea Eliza Katolikoaren slogan adierazgarriena *bakea* hitza esatea, justiziaz ahaztuz. Ezta diktadoreek, zapaltzaileek eta faxistek hitz hori gure belarriak aspertze arteraino erabiltzea ere. Gerra ondorena jasan genuen oso ondo gogoratzen gara Francisco Franco kriminal-diktadore-odolegariaren hitz maiteena *bakea* zela eta bere *25 Años de Paz* sloganarekin nazkatu gintuela. *Bakea* hitza, zoritxarrez, boterea dutenek, zapaltzaileek eta esplotatzaileek, maiz erabili ohi izan dute, eta herritarrok ere erabiltzen badugu agintedunen ideologiak kutsatuta gaudelako izango dela deritzot. Diktadura garaian Franco hiltzailearen bakeari hilerriko *bakea* edo kontzentrazio-eremuko *bakea* deitzen genion eta gaur egun ere, espainolen demokrazia honetan, *bake* hitza gehiegizko eta arinegi erabiltzen ote den susmoa dut. Mundu guztiak daki justiziarik gabe ez dagoela bakerik eta *bakea* ez dela lubaketan tiroka ari direnetako batek bakarrik armak uztea ere. Mundu guztiak dakien bezala justiziatik bakarrik etor daitekeela askatasuna, eta benetako *bakea* askatasun honen ondorioa besterik ez litzatekeela izango.

Lizarra-Garaziko itunak sinatu eta ETA-k su-etena iragarri ostean abertzale denok asko poztu ginen. Franco hil zenetik lehenbiziko aldiz elkartuta geunden, espainolistak haserre zeuden eta horrek bide onetik gindoazela eta goazela adierazten zigun eta digu. Baina (...) azken hamalau hilabete hauetan askoren ahotik sarri entzundakoa *bakea* hitza izan da, eta ez nazio-erakuntza, *bakea* besterik gabe gure helburua balitz bezala. Badirudi Euskal Herria nazio aske sekula san-

tan bilaka ez dadin nahi dutenengana ko beldurra handiegia dugula, eta okerrera askok *bake* hitz hau ETA-k borroka armatua uzteari soilik deitzen ziotela eta diotela da, botereak bere politika kriminalarekin jarraitzen zuen bitartean. (...)

Baina bada justiziarik lotuta dagoen gai bat barrenak erretzen dizkidana, hedabide gehiengoak ezkututzen duena eta justizia garrasika eskatzen ari dena eta hau terrorismoaren biktime-

na da. Hedabideen bonbardaketari jaramon eginez gero, badirudi biktimak alde batekoak bakarrik direla. Gatazka politiko, sozial, kultural edo militar batean beti bi alde izaten dira. Eta biktimak ere, zoritxarrez, bi aldeetakoak izaten dira. Ordain ekonomiko eta justizia eskatzen ari diren ETaren biktimak baino gehiago izango gara estatu-terrorismoaren biktimak, baina badirudi

gutaz hitz egiteko beldurra dagoela. Manifestazioetan eta guardia zibilaren kontrolatan hildakoak ez al dira terrorismoaren biktimak? Koartelilloetan edo komisarietan torturapean hildakoak ere ez? Eta Triple A, Batallón Vasco-Español edo GAL-en atzaparretan hildakoak? Josu Zabala *Basajaun* eta Jose Luis Geresta *Totto* ere ez? Ermuko kontzejalaren hilketak ikaragarria izan zen, baina are ikaragarriago izango da gartzelan sendagileak jaramonik ez dizulako egiten piskanaka hiltzen ari zarelako jakitea, horretarako askatasuna balute zure familiakoek kanpotik ekarritako beste mediku baten bidez edo honek agindutako botiken bidez sendatzerik baduzula jakin, kartzelariak —Espainiako gobernuaren politika jarraituz— horrelakorik uzten ez, eta azkenik, konponketarik ez duzularik, epe labur edo luzexego baten ondoren hilko zarela, zaituztela,

jakitea zer ote da? Oso oker ez banago Espainiako presondegiaren egoera honetatik pasa eta hildakoak hamabi dira. Hauek ez al dira terrorismoaren biktimak? Aipatu gabe, gure familiar-teko bati bezala, kale erdian atxilotu, eskuak atzera lotu, lurlean etzanarazi eta tiro bat, edo batzuk, buruan jaurtiz hildakoak askok uste baino gehiago direla. Eta tortura. Hitler-en garaian herri alemaniarrek ez omen zekien kontzentrazio-eremuetan juduak, ijitoak eta komunistak torturatu eta hiltzen zituztenik. Hemen, gure Euskal Herri zanpatu honetan, torturatuak milaka eta milaka gara, baina badirudi gu ez garela inoiz existitu. Hedabide gehiengoak gai hau ez du aintzat hartzen, gazterien ardura dutenek saihestu egiten dute, intelektual izeneko askok ere bai, hezitzaile omen diren gehiengoak ere bai, euskal literatura egile sari-jasotzailearen hiztegiaren tortura hitza ez dagoela dirudi eta torturatzeko jarraitu egin da eta jarraitzen da. Torturapean zenbat softritzen den hortik pasatutakoak bakarrik jakin dezakegu, heriotza desiratu arterainoko oinazea izan lezake, baina Alemanian nazien garaian bezala, hemen ere gai hori ez da interesatzen. Eta honela ez goaz ondo. Biharko egunean herriaren zati nahiko handi batek estatuko indar *ezkutuengandik* jasandakoa eguzkiaren argitan agertzen denean, errealitate hau ezkututzen edo erdizka agertzen ahailegindutakoak ez dira oso ondo geratuko eta horrelakorik gerta ez dadin behar diren urratsak egiten has daitezela eskatuko nuke.

Beraz, Lizarra-Garazikoei *bakea* hitza bigarren mailara eta justizia eta askatasuna lehenbizikora pasa dezaten eskatuko nieke. Ez dezagun, Francok bezala, *bakeaz* soilik hitz egin, Euskal

Herria nazio-projektu bezala desager dadin nahi dutenek horixe nahi baitute: Irabazleen *bakea*.

Orain sekula baino gehiago, ETA-k su-etena amaitu duela aldarrikatu duen une hauetan frogatu beharko dugu abertzale denok elkartuta gaudela, nazio-erakuntzaren alderako lanean ari garela, espainolak eta frantsesak zer esango diguten axola handirik gabe eta konplexurik gabe ausarki jokatzuz.

Amaitzeko, terrorismoaren biktimen eta hauen ordain ekonomikoaren gaia berriartuz, estatuaren terrorismoa jasandakook gurekin justizia egin dezaten nahiko genuke, torturatuak, jipoituak, zanpatuak, estatuaren indar ezkutuek, polizia edo guardia zibilak eraildakoak eta hauen senitartekoak, frogarik gabe urtetara kondanatutakoak, Euskal Herrikan kanpora bizitzera derrigortutako-

ak eta abar luze bat ere estatuaren terrorismoaren biktima direla eta garelako aldarrika dezatela lau haizetara boterea dutenek, Euskal Herrian askok uste baino gehiago baikara. Eta, nahiz eta idatzi hau pertsonalki egin, biktima asko ezagutzen dudalako, uste dut honekin aski genukeela. Justizia, besterik ez.

Azkenik, Argentinako erail eta desagertuen ahotza isilarazi nahi dutenen aurkako Hebe de Bonifini emakume borrokalari eta estatuko terrorismoaren biktimen bozeramaile kementsuaren hitzekin amaituko dut: «Pekamen ekonomikoak diru hau onartzen dutena prostituitzen du. Kapitalismoak gure kontzientzia diruaz nahi du erosi eta gure ahotza isilarazi, eta hau gure seme-alaben odola saltzea bezalakoa izango litzateke, isuritako odola ez baita inoiz negoziagai izango. Biziak bizi soilik balio du».

“  
*Ordain ekonomiko eta justizia eskatzen ari diren ETaren biktimak baino gehiago izango gara estatu-terrorismoaren biktimak*

“  
*Lizarra-Garazikoei bakea hitza bigarren mailara eta justizia eta askatasuna lehenbizikora pasa dezaten eskatuko nieke. Ez dezagun bakeaz soilik hitz egin*

## ...hemeroteka

### DEIA

#### Karmele Esnal

[MIKEL ATXAGA]

Abbadia saria eman dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Karmele Esnal andereñoari. «Ostro beltza ongi irabazia duzu», esango lioke, bizi balitz, bere kantu eta ipuin, hainbeste lagundu zion

don Nemesio Etxanizek. (...)Txapela, *ostro beltza*, zilarrezko haritz hostoa, Abbadia Saria edo dena delakoa ongi irabazia dute Karmele Esnal, Zipitria, Maiztegi, Goia, Faustina Karril, Amale Arzelus, Maritxu Barriola, Maria Dolores Agirre, Nemesio Etxaniz eta abarrek, euskara debekatua eta zigortua zegoen urte haietan euskaraz irakasteko eta libu-

ruak, antzerkiak eta kantuak egiteko adorea eta ausartzia izan zutelako.

(...)Urte zail haietan erein zen haziari esker bizi da gaur euskara. Orduko ikastolei zor zaie gaurko euskal irakaskuntza. Eta euskaraz eskolatutako belaunaldiari esker zabaldu ahal izan da euskara komunikabideetara eta administrazioa. (...)



ERHAN TURGUT / HERALD TRIBUNE